

ELIZALDE INSTITUTUKO JANGELA ARAUDIA

0.- SARRERA:

Elizalde Institutuak eskaintzen dituen jardueren artean bat jangela da. Jangelan, elikadura orekatuaren garrantziaz jabetzeaz gain, elkarbizitzarako ezinbestekoak diren arauak barneratzen irakatsi nahi dira.

Beraz, dagozkion xede guztietarako, Institutuko beste edozein jarduerari ematen zaion trataera izango du; horregatik, Elizalde Institutuko *Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, Antolakuntza Jardueren Araudian eta Ikastetxeko Urteko Planean* jasota dauden helburu eta arau orokorren ondorio zuzena da jangelako araudi hau.

Jangelan bazkaltzen gelditzea ez da derrigorra. Jangelan geratzen den edonork OOGk onartutako araudi hau ezagutu eta bete beharko du ezinbestean. Arauak ez betetzeak ondorioak izango ditu.

Bazkalkide, begirale, sukaldari eta jangelako arduradunen artean giza- legea izango da oinarri, ezinbestean. Horrelako zerbitzu batek martxa egokia izan dezan nahitaezko da denok zintzotasunez eta begirunez jokatzea.

1.- OINARRIZKO ARAU OROKORRAK:

1.1.- Jangelan geratzen diren ikasle guztiak egunean prestatutako bazkaria jaten derrigortuta daude; ezin dute nahi dutena edo gustukoa dutena bakarrik jan.

1.2.- Bazkaltiar guztiek menu berbera jango dute. Menu bereziak onartuko dira , betiere mediku-egiaztagiria aurkezten bada.

1.3.- Jangelatik ezin da janaririk atera.

1.4.- Jangelako hutsegiteak justifikatu egin behar dira. Horretarako ikastetxeko eredia erabili beharko da.

1.5.- Jangelako txukuntasuna denon ardura eta eginkizuna da. Jangela jasotzeko txandak antolatuko dira eta lan hori derrigorrez eta erantzukizunez bete behar da.

1.6.- Behin-behineko ikasle bazkaltiarrek ez dira onartuko ez direlako sukaldari eta zaintzaileen ratioetan sartzen eta leku aldetik arazoak daudelako.

1.7.- Ez da jantokiko kuotarik itzuliko zerbitzua erabili ez deneko egunengatik. Kasuan kasuko egoerak aztertuko dira eta OOGk beste erabakirik har dezake. Hezkuntza Sailaren diru laguntza (beka) jasotzen duten ikasle bazkaltiarrei ezin zaie inola ere ezer itzuli.

2.- JANGELAKO ARDURADUNEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK:

- 2.1.- Zerbitzu egokia eskaintzea (kalitatea, kantitatea, menuen egokitasuna..) dituzten bitartekoekin.
- 2.2.- Eguneroko gertakarien jasoketa idatziz burutzea.
- 2.3.- Ikasle, sukaldari eta begiraleen kexak eta iradokizunak aztertu eta bideratzea.
- 2.4.- Ikasleen hutsegiteak kontrolatzea.
- 2.5.- Jangelako araudia ikastetxean parte hartzen duten alderdi guztiei ezagutarazi eta betearaztea.
- 2.6.- Jangelako kudeaketa ekonomikoa bideratzea.
- 2.7.- Jangelako horniketa bideratzea.
- 2.8.- Zuzendaritza , jangelako langile eta Auzolaguneko arduradunarekin egunerokotasuna aztertzeko bilerak antolatu eta bideratzea.
- 2.9.- Ikasleek bazkaltzen duten bitartean bertan egotea.
- 2.10.- Jangelako Arautegiaren aplikazioa irakasle arduradunen betebeharra da. Horretarako jangelako beste langile guztiekin koordinatuko dira.

3.- SUKALDEKO LANGILEEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK:

- 3.1.- Zerbitzu egokia eskaintzea.
- 3.2.- Dagokien lan hitzarmenak araututako eginkizunak betetzea.
- 3.3.- Ikastetxeko jangela arduradun eta zuzendaritzarekin adostutako hainbat eginkizun burutzea.

4.- BEGIRALEEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK:

Auzolagun enpresak eta jangelako arduradunek adostutako eginkizunak betetzea. Horien artean hauek:

- Jangelako araudia ikasleei betearaztea. Arazoak sortzen direnean irakasle arduradunak daude arautegia aplikatzeko eta interpretatzeko. Hauekin koordinatu behar dira arazoei aurre egiteko.
- Ikasleen janari banaketaz arduratzea.
- Janari eta tresneriaren erabilera egokia bideratzea.

- Bazkaldu ondoren ikasleen jasotze lanak bideratzea.
- Ikastetxe barruan geratu behar duten ikasleen zaintza bermatzea.
- Ikasleen arteko elkarbizitza eta segurtasuna zaintzea.
- Jangelako arduradunei suertatzen diren gorabehera guztien berri ematea.

5.- IKASLEEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK:

5.1.- Jangelako araudia ezagutu, onartu eta bete.

5.2.- Klaseak amaitu ondoren zuzenean jangelara joan, arduradun eta begiraleek emandako aginduen arabera.

5.3.- Ikasle bakoitzak bere leku finkoa izango du jangelan eta bertan eseriko da.

5.4.- Egunerako prestatutako menua jan behar da.

5.5.- Erabiltzaile guztiek aldeztu aurretik ezagututako menua bazkalduko dute, salbuespenak salbuespen. Ikasleren batek dieta berezia beharko balu medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

5.6.- Txukuntasunez bazkalduko da, tresna eta instalazio guztiak zainduz.

5.7.- Janaria eta tresneriarekin ez da jolastuko.

5.8.- Giro lasaian bazkalduko da, zarata eta iskanbilarik sortu gabe.

5.9.- Jangelatik ezin da janaririk atera.

5.10.- Jangelako txukuntasuna denon eginkizuna denez, jangela jasotzeko txandak daude; lan hori erantzukizunez eta derrigorrez bete behar da. Ikasleren batek bere jasotzeko txanda ezin bete izango balu, ordezkapena egiteko beste ikasle bat aurkitu beharko du eta, gutxienez, egun bateko aurrerapenarekin aldaketa horren berri emango dio jangelako arduradunari.

5.11.- Zerbait gertatzen denean, begirale edo arduradunei jakinarazi.

5.12.- Astearte eta ostegunetan liburutegian lanean aritzeko aukera izango da, liburutegirako ezarritako irizpideak jarraituz, bertan dagoen irakaslearen agindupean.

6.- GURASO EDO TUTORE LEGALEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK:

6.1.- Jangelako araudia ezagutu, onartu eta bete.

6.2.- Jangelari dagozkion 9 kuotak ezarritako epean ordaindu: lehenengo kuota urrian eta ekainean azkena. Kuotak hilaren lehenengo hamabostaldian kobratuko dira banku-helbideratzearen bitartez.

6.3.- Ikasleren batek jangelan baja eskatzen badu, hilabetea bukatu baino lehen adierazi beharko du hurrengo kuota kobratu ez dakion eta jangela zerbitzuko beste gastuak behar bezala kitatzeko.

6.4.- Jangelako hutsegiteak idatzirik justifikatu behar dira, ikastetxeko eredia erabiliz.

6.5.-Ikasle batek Ikastetxeko eremutik atera behar izanez gero, baimena idatzirik eta sinatua helarazi beharko dute. Egoera honetan, ikaslearen ardura hartuko dute.

7.- DISZIPLINA ARAUBIDEA:

7.1.- Jangelako araudia hausteko ondorioak izango ditu eta gertatutakoari egokitutako neurriak hartuko dira, beti ere, ikaslearen hezkuntza-prozesua hobetzeko asmotan.

7.2.- Neurrien artean hauek aurreikusten dira larritasunaren arabera:

- Bakarka, ahoz ohartarazi.
- Guraso edo/eta tutoreei jakinaraztea.
- Institutuko gertakarien liburuan jazotakoa agertzea, bestelako hutsegiterik balego, horiei gehituz. Honela, jangela garaiko hutsegiteak "Ikasleen Diziplina Araubidean " zehazten den kasuan kasuko trataera izango dute: arina, larria edo oso larria.
- Ikaslea mahaiaz aldatzea edo bakarrik jarritz denboraldi baterako.
- Lehenengo plateran ezarritako gutxienekoa jan ezean, bigarren platera ez zerbitzatzea.
- Zeregin konpentsatzaileak ezartzea.
- Ikasleren bat jangelatik kanporatzea erabakiz gero, zera hartuko da kontuan:
 - a.- Behin-behineko kanporatzea, gehienez, astebetekoa bada ez da diru-kenketarik egingo.
 - b.- Behin-behineko kanporatzea astebete baino luzeagoa edo behin betikoa bada bigarren astetik aurrera ez da janaririk kobratuko; bai, ordea, jangelako beste gastuak.

Oiartzunen, 2018ko urriaren 17an Ordezkaritza Organo Gorenak onartua.